

IKASTETXEAREN PROIEKTUEN LABURPEN FITXA

Ikastetxearen izena / Nombre del centro

Lizardi BHI

Herria / Localidad

Zarautz

Proiektuaren izena / Título del proyecto

Arbel elektronika Fisika eta Kimika irakaskuntzan

Harremanetarako pertsona / Persona de contacto

Rafa Muñoa Anabitarte
Eduarne Iribar

Korreo elektronikoa / E-mail

edurne@zarauzgune.com

Proiektuaren laburpena / Resumen del proyecto

Arbel elektroniko interaktiboak (ADI) ikasteetxetara etorri dira, eta etorri dira hezkuntzan geratzeko. ADIren erabilpenak dituen abantailak handiak dira eta orain hasi gara horietako batzuk ulertzen. Fisika eta Kimikaren irakaskuntzan erabiltzen denean, faktore hauek ditu bere alde:

- **Kontzeptu zientifikoaren ulermena.** Kontzeptu zientifikoak zailak dira ulertzeko: gogoratu behar da zientziak eredu zientifikoak eraikitzen dituela errealitatea azaltzeko; eta eredu horiek zailtasunak dituzte. Zailtasunak izan daitezke kontzeptuen objektuak ikustezinak direlako (atomoak eta molekulak) edo naturan esistitzen ez direlako (bektoreak...). ADI-ren bitartez ulertzeko prozesua errazten da zeren ereduak azaltzeko bide berriak ditugu: irudi erakargarri eta esanguratsuak, animazioak, bideo digitalak eta interaktibitatea. Eta bide horiek erabil daitezke gaia azaltzen dugun momentuak, era sinkronoan.

- **Denboralizazioa.** ADIren bidez gaia azaltzeko denbora murriztu egiten da. Murrizketa hori zaila da ebaluatzen, baina nire ustez %20 - 25 ingurukoa izan daiteke.

- **Metodologia.** ADIren bidezko irakaskuntzak metodologiaren aldaketak eskatzen ditu: ikasleak aktiboagoak izateko aukera ematen du, aurrekontzeptuak errazago detektatzeko aukera...

- **Planifikazioa.** ADIren bidez azaldutako gaiak erregistratuta geratzen dira. Honela, irakaskuntza-prozesua errepika daiteke hurrengo ikasturteetan edota prozesua doitu (irakasteko ikuspuntua aldatu, materiala hobetu...) eraginkortasuna hobetzeko. Hobetze-prozesu hau gure kontrolpean geratzen da erregistroa dugulako.